

KALAMUAGA-MAIZA (KALAMUA) MENDIGUNEKO HISTORIAURREKO AZTARNAK

OLABURU ETA SANTUMOTZ

Santumotz otoizlekua Idotorbeko (San Pedro) nekazal auzoan dago eta bertako auzotarrek eraiki zuten santutxea Elgoibarko Udalaren laguntzaz 2007an. Bertan dagoen eskultura auzo honetako Urkiola baserrikoa den Andres Egidazu artistak landu zuen. Era berean, merezi du balioan jartzea Elurzuloa, antzinako garrantzi handiko elementu etnologikoa, eraikin txiki honen metro gutxira dagoena.



Andres Egidazuk egindako eskultura. Barandiaranek zioen bezala Santumotzi gurtza ez zegoela Eliza katolikoaren santuen izendegian. Eskultoreak irudiari eskuin eskuian usoa (bakearen ikurra) eta ezkerrean gurutzia (Kristoren heriotzaren ezaugarria) jarri zizkion

Santumotz toponimo bera erabili da Kalamuaga-Maiza (Kalamua/Maax) mendiaren tontorreko postontziaren azpian dagoen lepoari (Olaburu) izena emateko, Iruiturrirantz jaitsiz; izen horrekin ezagutu zen lehen tokia izan zen. Hala ere, gaur egun, Olabururen antzinako adiera da toponimorik jatorrena eta erabiliena zona hori izendatzeko.

Don Jose Migel Barandiaran (Ataun, 1889-1991) eta don Telesforo Aranzadi (Bergara 1860-Barcelona 1945) zenek, antropologo, etnologo eta ikertzaileek mendigune honetako Diruzulo (Markina-Xemein) eta Olaburu (Santumotz, Elgoibar) trikuharriak bisitatu eta induskatu zituzten 1934ko abuztuaren 30etik irailaren 6 bitartean. Don Antonio Arrillaga sendagile ospetsu eta kultur eragile elgoibartarrak lagundu omen zien, eta Pedro Gorostidi (apaizgaia orduan eta gerora urte askoan Arrate santutegiko kaperau eta irratiko eragilea) elgoibartarrak ere aurretik gune honetako tontortxo (tumulu) baten berri eman zion apaiz zientzialari ataundarrari, biak Gasteizko apaiztegia bizi baitziren.

Uste dut merezi duela Barandiaran eta Aranzadiren meritu akademikoak gehiago zehaztea, betiko galtzeko zorian zen euskal kultura biltzen, aztertzen eta ahanzturatik salbatzen egin zuten lan handiagatik. Hori dela-eta elkarre

askotako kide izan zen Barandiaran eta egindako lan eta ikerketa zientifiko handia eta sakona aitortu zioten, hona hemen: Real Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria; Sociedad Ibérica de Ciencias Naturales; Euskaltzaindia; Real Academia de la Lengua Española; Société Française d'Ethnographie; Folklore Society; eta abar. Era berean, honoris causa doktore izendatu zuten Euskal Herriko Unibertsitateak, Gasteizko Teologia Fakultateak, Deustuko Unibertsitateak eta Madrilgo Complutense Unibertsitateak.

Telesforo Aranzadi, berriz, 1882an doktoratu zen farmazian Madrilen, eta bost urte geroago antropologia saila sortu zen Madrilgo Historia Naturaleko museoan, eta antropologiari buruzko interesa piztu zitzaion, bizitza osoan pasioz arituz zientzia horretan. 1891n, 31 urte zituela, Parisko Antropologia Elkartearen saria jaso zuen *"El pueblo euskalduna"* lanarengatik, euskal leinuaren ikerketa zientifikoari ikuspegi antropologikotik eskainitako lehen lanetako bat. 1895ean Mineralogia eta Zoologia katedra lortu zuen Granadako Unibertsitateko farmazia fakultatean, eta geroago Botanika deskriptiboaren katedra Bartzelonan, bertako dekanoa izan zelarik 1907ra arte. 1897an Zientzien Errege Akademiaren saria eman zioten *"Setas y hongos en el País Vasco"* lan zorrotzagatik. Moskuko Historia Naturalaren, Antropologiaren eta Etnografiaren Lagunen Elkarte Inperialak kide titular izendatu zuen 1910ean; bi urte geroago, 1912an, Argentinako Elkarte Daktiloskopikoaren ohorezko bazkide izan zen. 1919an Portugalgo Antropologia eta Etnografia Elkarteko bazkide urgazle izendatu zuten, 1920an Bartzelonako Unibertsitateko Zientzia Fakultatean antropologiako katedradun, 1931n erretiroa hartu zuen arte, eta 1921ean Erromako Antropologia Elkarteko kide urgazle hautatu zuten.

Halaber, munduko elkarte zientifikoek izendapen hauek jaso zituen: Argentinako Ikerketa Geografikoen Elkarteko eta Kubako Historia Naturaleko Felipe Poey elkarteko kidea (1923); Historiako Errege Akademiako akademiko urgazlea (1924); Berlingo Institutu Arkeologikoko kidea (1926); Bartzelonako Zientzien Errege Akademiako kide numerarioa (1927), eta abar. Era berean, Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorreko kidea izan zen, Natur Zientzien eta Antropologiaren ataleko Espasa Entziklopediaren laguntzailea, Municheko



Elkarte Antropologikoko kide urgazlea, eta Humboldt, Frizzi eta Haberlandten lanen itzulpenak eginez, besteak beste.

Azaldutakoaz gain, Aranzadi literatur ekoizpen handiko ikertzaile handia izan zen. 300 argitalpen baino gehiago zenbatu daitezke, batez ere antropologiari, etnografiari eta Euskal Herriko historiaurreari buruzkoak.

Barandiaranek Olaburu-Santumotzi buruzko kokapena (Kalamua (*Maiza/Kalamuaga*) tontorreko ipar ekialdean) zehaztu ondoren honako hau zioen hitzez hitz bere "Obras Completas" XIII. liburuan: *"Este collado de Olaburu se llama también Santumotz. En él se celebraba antiguamente una romería de igual nombre el 2º domingo de agosto. Dícese que allí estuvo una estatua de Santumotz, que no hemos logrado identificar con ningún santo de los que figuran en el santoral. Más tarde la romería (baile de los jóvenes) se trasladó a otro lugar más abajo, que también*

es llamado Santumotz. Los caseros del vecino barrio de San Pedro hacen fiesta el mismo día, celebrando banquetes, a los que llevan invitados a sus parientes y amigos”.

Auzoko nagusiek esanda dakigu Olaburu (Santumotz) inguruko sasi-ordekan sei-zazpi txabola egon zirela garai batean. Horietako handiengan eta erdian zegoena, Olaburu zeritzan gizona bizi zen; besteak, aldiz, baserritar batzuen jabetza ziren eta bertan bizi ez arren artalde eta artzainen babesleku ziren. Horrek adierazten digu aurreko garaietan artzaintza kultura errotua zegoela inguru horretan.

Toki honetan egin ohi zen erromeriari buruz Pedro Arrillaga (Arane) zenak honako adierazpen hauek egin zizkigun: *“Gure ama zanak esaten zaban “Korkotsa”edo “Besamotz” maisuak santua egin zabala. Berak intxaurra egurra hartuta. Itxuria oso artistia zan. Santua egin eta Santumotzetik hurrengo txabolan ipini zaban santu hori kurtiniakin eta eguna zelebratzeko hiru aldare eginda. Beti izaten zan burrukia erromerixa guztietan. Etorri sartu... Kandlekin ipinita egongo zan. Ze daok hemen ta kortina hori zabaltzen hasi da maisu horrek barrura ikusi zabanian jaurti zion makilakadia hara joan zalako barrura eta jota santuaren musua apurtu zion itxuria. Horregatik “Santumotz” musua apurtu ziolako, “Musumotz”: “Santumotz”.*

Santumotz erromeria-tokiari eta giroari buruz ondorengo hau zioen berak hitzez hitz: *Puntu onian eta jende asko batzen zan. 2 korru edo 3 igual. Jende mordua pilatzen zan. Puntua zauan-ta”.*

Olaburu trikuharria (Santumotz, Elgoibar) 1934ko irailaren 6an induskatu zuten, eta Barandiaranek horri buruzko txostenean kokapen datuak (*Kalamua tontorretik ipar-ekialdean*) azalduz gero dio 7 metro diametroko eta 0,60 metro altuerako harri piloa aurkitu zutela. Erdian zulo zirkular bat zeukan, non antzina harlauza batzuk zeuden; hauek trikuharri-ganbara osatu baitzuten. Orduan ez bazen erreza tumulua antzematea, belarrek eta garoek harriak estaltzen zituztelako, egun ere egoera berdinean dago.

Indusketaren lan gogorra egin arren ez zuen fruiturik eman, ez baitzen ezer (hezurrik zein objektu arkeologikorik) aurkitu.



Garaigurenen Barandiaranek, euskal kulturaren patriarka zenak, aurkitu zuen gezi punta

Azkenik, garrantzi handikoa da aipatzea Garaiguren lepoan (Elgoibar eta Eibar arteko muga) suharrizko gezi punta bat aurkitu zutela, eta Barandiaranek idatzirik utzi zuen bezala: oliba kolorekoa da eta mendigune hartako trikuharriekin erlazonaturik izan zitekeen.

KANPAIZULO

Juan San Martin Ortiz de Zaratek (Eibar 1922, Hondarribia 2005) Kanpaizuloko trikuarri-tumulua ezagutu eta haren berri eman zuen 1953an (Munibe). Hona hemen kokapena: longitueda: 01° 14' 30''; latitudea: 43° 13' 53'' eta altitueda: 478 m.



San Martin idazlea, euskaltzaina, etnologoa, espeleologoa, arkeologoa, alpinista, mendizalea eta Arartekoa (1989-1995), baita Ombudsman Europar Institutuko lehendakaria (1994 eta 1995 artean) ere izan zen. Halaber, humanista eta autodidakta, Euskaltzaindian ardura desberdinak izan zituen, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko, Eusko Ikaskuntzako, Aranzadi Elkarteko eta ohorezko kide. Halaber, beste zenbait hizkuntz, kultur, arte eta politika erakundetan esku hartu zuen, guzti hauek zehaztea gehiegi izango denez, Elgoibarko Morkaiko mendi elkartearekin izandako harremana erantsiko dut bakarrik.

Izan ere, aipatutako Elgoibarko Morkaiko mendi elkartek Juanito San Martin zena eraman ohi zuen gidari (goi-mendietako irakasle eta gidari zen) mendikate garaietara hasierako irteera haietan. Lehendabiziko espedizioa 1956an Picos de Europa (Llambrión eta Peña Vieja) eta hurrengoak Pirinioetara 1959an (Ballaitus eta Gran Facha), 1960an (Aneto), 1964an (Comoloforno eta Motarto) eta hortik aurrera urtean bat baino gehiago. San Martin eskarmentu handiko gizona eta mendi horien ezagupen sakona zuelako, baita bere adeitasunagatik eta giza hurbiltasunagatik ere. Zenbait elgoibartar mendizale nagusiek gogoan dute bereziki 1967an egin zuten Pirinioetara (Monte Perdido; Tallon, Marbore eta Aspe) txangoa San Martin gidari zela, eta aipamena merezi du, lehen aldiz, hogeitau urte inguruko neska elgoibartar gazte batzuek parte hartu zutela. Argitu behar da, aurretik emakumeren bat bere senarrarekin edo senargaiarekin joan ohi zela horrelako mendietara.

Horrela, bada, ez da harritzekoa, San Martin jauna eibartarra gure inguruko mendietan barna oinez ibiltzea, eta horrelako batean Kanpaizulo parajea ezagutu eta interpretazio bat egitea hartaz. Honela azaldu zuen berak 1953ko Munibe aldizkarian ustezko elementu arkeologikoaz eginiko komunikazioan: *Elgoibarko eremuan Morkaiko eta Kalamua mendien artean tontortxo bat dago, Kanpaizulo izenez ezaguna dena. 1952ko otsaila zen, Juan Maria Larreategirekin batera, oharkabean gure bidea gailurretik zertxobait iparraldetik desbideratu genuenean, eta lautadatxo bat zuen tontortxo batetara iritsi ginen, non 7 m. diametro eta 0,30 m. altuera zuen harri pila behatu genuen.*



Multzo guztia oso nahas-mahasean zegoen eta ez genukeen kontutan hartuko, Kalamua

mendiko Olaburu eta Diruzulo trikuharri-tumuluak ezagutu ez bagenu. Trikuharri baten hondakinen aurrean zeudela konturatu zen San Martin, ezusteko hura izan ondoren, noski.

Jarraian, bi lagunak Kurutze baserrira jaitsi ziren (Aiastia (Gipuzkoa) eta Etxebarria (Bizkaia) arteko muga), Kanpaizulo eta Urkaregi artean zegoena, eta han esan zieten leku hori Kanpaizulo toponimoagatik ezagutzen zutela, antzina esaten baitzen urrez betetako kanpai bat gordetzen zela bertan. Era berean, aipatutako baserriko jaunak gogora ekarri zuen bere gaztaroan urrea bilatzeko indusketak egin zituztela.

MURUKO (MORU) BURDIN AROKO HERRIXKA

Elgoibarko paleotoponimiari kasu eginez gero, Muru dugu eta ez Moru toki honen izenik antzinakoena, eta ez da kasualitatea, izen bereko historiaurreko aztarna arkeologikoak dituzten beste leku batzuk ere badaudelako. Izan ere, Elgoibarko Murura hurbiltzeko toponimiak ere (baita kokapena, airezko argazkiak eta abar) lagungarri izan zuten, Nafarroan Muru toponimo duten zenbait historiaurreko herrixka ezagutzen direnez. Horrela bada, baldintza horrek garrantzi handia izan zuen Aramaio-Arrasate-Aretxabaletako Murugainera eta gure herriko Muru tokira iristeko, eta lehen lagin-zuloak egin zituzten Aranzadi zientzia elkarteko Olaetxea eta Peñalver arkeologoen. Aipatutako aztarnategi horiez gain, bada beste herrixka bat ere Murumendi izenarekin,: Beasain-Itsasondon.



P. Arrieta

Bertako Muruko (Moru) herrixka Idotorbe (San Pedro) auzunean egon zen, 458 metrotan itsas gainetik, eta honako hauek dira haren koordenadak: 43° 12' 32, 78"N 2° 25' 59,48"W. Harresi batek gotortzen zuen, eta Arrese eta Padin arkeologoen arabera ia 3 Hako barrutiko perimetra (iparraldetik eta hegoaldetik ebakidurek hondatuta) zeukan, eta argitu behar da ere egun landaretza ugariak ezkutatzen duela harria. Halaber, mendiko malda gogorrek defentsa naturala ezin hobea eskaintzen zion Mururi (Moru). Bertatik

Deba ibaiko estugune bat menderatzen da; eta baldintza guzti horiek leku estrategikoa kontsideratzera laguntzen dute, kontrol zein segurtasuna eskaintzen baitu esparruak, ur (Saturio erreka) horniketa gertu samar duelarik.

Karlos Olaetxeak eta bere taldeak aurkitu zituzten aipaturiko gotorlekuko hondakinak 1989. urtetik, guzti honetaz *Arkeoikuska 89, 90, 91.eko liburuxketan eta Eusko Ikaskuntzako (4, 1991) Cuadernos de Sección: Prehistoria-Arqueologian* hauen berri emanaz. Aurkitutako hondakinei buruz ondorengo informatu zuten: *Hegoalderantz, murruan antzina egin zen ebaki batean, zeramika porotsuko hondakin batzuk jaso ziren, orain arte induskatu diren herriguneetan aurkitu denaren antzekoak. Hobeki bukatutako zeramika hondakin batzuk, tornuz moldatuak eta laranja kolorekoak ere aurkitu ziren. Guzti hau zentimetro bateko lodiera zuen sute maila baten barnean eta ebaki baten azalean agertu zen. Handik ehun metrotara zeramika hondakin gehiago jaso genituen, zuhaitz zahar baten erroek harroturiko lurtean.*

1991n Olaetxea beraren zuzendaritzapean Lehenengo Zundaketa kanpaina egin zuten, eta saio arkeologiko hark berretsi zuen Burdin aroko (900-200 K. a.) gotorleku bat izan zela Muru (Moru). Ondorengo datuak dira datazioak: -16.861 Moru1: 2170 +/- 80 B.P. I-16.862 Moru2: 2670 +/- 100 B.P.

2000 eta 2004 artean garbiketa lanak eta egituren dokumentazioa egin ziren Udalak bultzatutako lan eremuetako egitarauaren bidez, J. A. Lekandak zuzendua. Aztarnategiko perimetro guztian egin zituzten lan hauek, sastraka garbiketza egin eta harresiarekin erlazionatutako hondakinak identifikatzea. (Lecanda 2002, 2003, 2004; Lecanda et al. 2001)

2017. eta 2020. urteen artean, lau zundaketa-kanpaina egin zituzten Ander Arrese eta Xabier Padin arkeologoek, okupazio-eremu desberdinak, eraikuntza-elementuak eta egiturak definitzeko helburuak zituzten, bereziki defentsa ertzarekin erlazioa dutenekin, baita eremurako sarrerak eta honen lotura ere bere inguruko antzeko aztarnategiekin.

Aurkitutako egiturek, haien ezaugarri geografikoen, material arkeologikoen eta egindako datazioek adierazten digute, Burdin Aroko herrixka baten aurrean gaudela zioten Arresek eta Padinek. Arkeologo hauek ustezko bizitoki-egiturak 1B (krokisa) eremuan kokatzen dute defentsa-hesia ondoan, bertan material arkeologiko eta organikoko dentsitate handiago baitago. (**Kobie Paleoantropología nº 37: 91-100 Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia Bilbao - 2019-2020**). Eremu bateko datazioak eransten badituzte ere ez dugu hona ekarri ez dutelako ekarpen berririk egiten.

IGARZA/MORTARIKA (MORTERIKA) ERREKASTOAN AURKITURIKO AIZKORA BOTIBOA

Jose Julian Marquez 14 urteko nerabeak aurkitu zuen aizkora botibo hau Igarza edo Mortarika (Morterika) errekaetan 1988ko ekainean. Aurkikuntza honek, historiaurreaz gehiago interesatu, irakurri eta ikastea eragin zion bere kontura, autodidakta baita, eta azpimarratuko dut ezaguera sakona duela, hamaika ordu eskaini baitizkio eta etengabe jarraitzen du jorratzen gaia.

Aurkikuntza horren ondorioz, historiaurreaz gehiago interesatu zen, garai horri buruzko ezagutzak irakurtzen eta eskuratzen hasi zen, eta eskarmentu handiko autodidakta bihurtu zen, ordu asko eskaini dizkiona eta gaur egun ere gogor diharduna lanean.

Nolanahi ere, esan behar da, Izadiarekiko eta gure arbasoei buruzko grina ordurako bere baitan zuela. Horrela, ikaskuntza jarraituak lehen gizakiek erabilitako tresneria lantzeari ekingo dio 2004an, hasieran hezurrez eta geroago gainerako materialez egingo ditu erreplikak. Ondoren, poliki-poliki bere lana ezagutarazi du, eta tailerrak eta erakustaldiak eman ohi ditu 2010etik honantz, harik eta 2019an Hezur Museoa ireki zuen arte herrian. Bertan, 700 pieza erakusten ditu maisuki jorratuak, historiaurreko gizakiek landu zituzten material eta teknika bertsuekin, Paleolito garaiko Achelensetik Brontze Arora arte. Halaber, azpimarratzekoa da, Elgoibarko Udalak utzitako erakusgela



Marquezek berak apaindu zuela, Ekaingo (Zestoa, Gipuzkoa) haitzuloan dauden bezalako hartz eta behor-zaldiak, Altamirako (Cantabria) bisonteak eta Europako beste zenbait kobatako mamuts eta lehoiak margotuz.

P. Arrieta

J.J. Marquezek aurkitu zuen brontzezko aizkora botiboa Igarza/Morterika (Mortarika) errekastean

Marquez adiskideak aurkitutako aizkorari heldu diezaiozun, eta esan behar dut Leizarpe espeleologia taldeko eta egun Mufomi museoko sortzaile nagusi den Jabier Vargasek eman zizkidala, aizkorari buruzko datuak eta aizkoraren kopia bat ere XX. mendeko larogeita hamarreko hamarkadaren hasieran. Hona hemen datuak:

Luzera guztira: 138 mm.; orpoko luzera: 61 mm.; ahoko zabalera: 34 mm.; eraztunetik zabalera: 33 mm.; pisua: 200 gr.; eta dentsitatea: 7,14.

Horrela bada, brontzezko aizkora botibo bat da, orpo eta bi eraztunekin, egoera onean dagoena (Marquezek Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroko "Gordailuan" utzi zuen pieza), Brontze Aroko bukaerakoa edo Burdineko hasierakoa, 3000 urte inguru dituen, eta Leizarpe taldekoek zioten, eta ni ere bat nator eurekin, arestian aipatutako Muruko (Moru) herrixkarekin harremana izan dezakeela. Aizkora mota hau Brontze Atlantiar deiturikoaren barruan sartzen da, eta Penintsulari dagokionez ohikoa da Asturiasen, Galizian eta Portugalen; nahiz eta Euskal Herrian, nahiko ezohikoa izan.

Komentatu da aizkora honek Muruko (Moru) herriskarekin izan dezakeen loturaz, baina gaineratu behar da ere, Leizarpe taldeak 1975ean Aiastia (San Migel) auzoko Talaia baserritik beheko aldean, Morterikako (Mortarika) sakanan aurkitutako kalkopirita meategi batekin ere harreman estua izan dezakeela, 200 bat metrora baitago aizkora aurkitu zen tokitik. Izan ere, Angel Tobajas Leizarpeko kide nabarmenak Diario Vascon 2000ko maiatzaren 28an Aitor Zabala kazetariari emandako informazioa izango dugu idazpide, ondoren.

Norbaitek informaturik iritsi omen ziren haitzulo horretara, harrituta, ez baitago karedun formaziorik, eta hirurogeita hiru metro luzeko barrunbe hau gizakiek okupatu izanaren seinaleak aurkitu zituzten, Tobajasek azterketa topografikoa

egiterakoan. Haitzuloko alde bietako hormetako goialdean zuloak zeuden, horma-hobi itxurakoak, eta zulo horietako hogeita bi nahita eginak ziren, bat bestearen aurrez aurre. Tobajasek hauek argi-zuloekin lotu zituen, ez bairik gabe; baina ebidentzia gehiago aurkitu ezinda geratu ziren 1988ko uholdeek luizi bat eragin zuten eta lau metroko lur eta harri azpian gelditu zen kobazulo artifizia. Komentatzen zuen harrezkero ahalegin bat baino gehiago egin omen dutela kobako sarrera irekitzeko, baina lan ikaragarria denez eta makinaria astuna beharrezko...; hala ere, eginkizun zaila izan arren, egunen batean lortzeko itzaropena dutela.

Azkenik, Morkaiko Leizarpe talde espeleologikoak (1973-2023) merezi du goraiatzea egin duen eta egiten ari den lan ikaragarriagatik berrogeita hamar urte pasa hauetan. Azpimarratzekoa da arlo honetan, halaber, talde horren baitatik sortutako Elgoibarko MUFOMI (Fosilen eta Mineralen Museoa, 1994), nahiz eta gaur egun funtzionamendu berezia izan, ezerezetik hasi eta mantentzen duen erakusketa duin eta erakargarriagatik. Beira-arasetan 3.600 pieza (2.300 fosil, mineralak, lurpeko fauna, moluskoak, mineralak, eta kronogikoki ordenatutako hainbat elementu arkeologiko) erakusten dituzte eta kulturari dagokionez, behe paleolitikotik hasi eta erromatarren garaira arte luzatzen da.